

GRADUZ ALDATZEKO ESKARIEI BURUZKO ARAUTEGIA, UPV/EHUko ARTE EDERREN FAKULTATEA

Araudi honen helburua da gradu-aldaketak emateko modua arautzea, hala eskatzen duten ikasleei, ikastetxeak ezarritako epearen barruan.

Aldaketa eskatu ahal izateko **ezinbesteko baldintza**, nahitaezko ikasgaiei dagozkien 120 ECTS kredituak gaindituta izatea da. EHUko Arte Ederren Fakultatean lehen eta bigarren mailan ematen diren hiru titulazioetako irakasgai komunak jaso behar dituzte kreditu horiek.

Ikastegiko Ikasketen Antolamendurako Batzordeak gradu bakoitzerako jasotako eskaerak aztertuko ditu, eta plazak betetzeko orduan oreka mantentzeaz arduratuko da, ikasturte bakoitzeko egoera kontuan hartuta.

Ikasleen banaketan desorekak sor ditzaketen eskabide asko jasotzen badira eta aldaketa kopurua mugatu behar bada, irizpide hauek aplikatuko dira, hurrenkera honetan:

1. **Aldaketen muga:** Gradu bakoitzeko eskabide kopuruan desorekaren bat egonez gero, emandako aldaketa kopuruak ezingo du promozio bakoitzeko ikasleen %5a gainditu. Horren helburua taldeen masifikazioa ekiditea da, eta era berean, gradu bakoitzean gutxieneko matrikulazioa bermatzea.
2. **Hautaketa irizpidea:** Aldaketa kopurua murriztu behar bada, lehenengo eta bigarren mailetan batez besteko notarik onena duten ikasleek izango dute lehentasuna. Notak erabakiko du emateko hurrenkera.
3. **Berdinketa hausteko irizpidea:** Berdinketarik izanez gero, hurrenkera erabakitzeke irizpide gisa, lehentasuna izango dute fakultatean ikasten hasi zirenean orain egin nahi duten graduan sartzeko behar besteko nota zeukaten ikasleek.

Gradu aldaketa onartu ondoren, fakultateak jarraitu beharreko tramiteak jakinaraziko dizkie ikasleei. Aldaketa hori **espedienteak lekuz aldatzea** izango denez, lortzen duten ikasleen matrikulazioak ezin izango die kalterik egin ikasketak lehenengo egunetik aldatu gabe egiten dituztenei.

Hori dela eta, gradu-aldaketa lortu duten ikasleek hirugarren mailako hautazko irakasgaietan izena emateko, matrikula egiterakoan libre dauden plazak bete beharko dituzte.

Graduz aldatzeko eskaera ikasturte bakoitzeko idazkaritza egutegian ezarritako epearen barruan egin beharko da.

Arautegi hau Ikastegiko Batzarrak onartu zuen 2025eko martxoaren 11n.